



Ikaztegietako Kultur Astea ere ate joka da

EGITARAUA ▶ Igandean hasi eta 26ra arte, txotxongiloak, antzerkia, erromeria, hitzaldiak... izango dira

KROSA ▶ XV. Kros Herrikoia Kultur Astearen barruan egingo dute aurten, igandean bertan ▶ 5

TOLOSA ▶

**Ezinduen
Kirol Astea,
jardunaldia
haurrentzat**

Sentsibilizaziorako
tartea, Usabalen ▶ 2

Eskualdeko ikasleak grebara deitu dituzte Ikasle Abertzaleek

TOLOSALDEA ▶ Bihar Mobilizazio Eguna egingo dute Euskal Herriko ikastetxeetan eta greba orokorra fakultate guztietan ▶ 2



ARESO ▶

**Mikel
Olazabal,
pixkanaka
txapelketan
aurrera**

Final-laurdeneko
partidu ikusgarrian,
22-15 irabazi zuen
Jauregi lagunarekin ▶ 7

Mikel Olazabal. J. ASTIBIA

L. TERRADILLOS



VILLABONA ▶

**Aurtengo Guraso
Eskola Udalak
antolatuko du**

0-10 eta 11 urtetik aurrerako taldeak
sortuko dituzte; izen-ematea, zabalik ▶ 4

BERASTEGI ▶

**Ezkontza
berezia
egin dute
herritarrek**

Festa giroan burutu
zuten antzezpena ▶ 6

**azkar
ibili!**

LG F2300 + 100€ = 59€
deietan

Argazki-kameraduna • JAVA jokoak deskargatzeko aukera • GPRS • 65.000 koloreko pantaila • Azkar ibili, bukatu egingo dira eta!

Informa zaitetz 900 840 840 zenbakira deituta edo hurbilen duzun Euskaltelen saltokian.

Euskaltel

Prezioa Euskaltelen Lohioz-Haulekoki produktuen bazarzentzari da. Salapena 2005/12/26 arte bako da, 1000 deueni TPV akaberaz gero, en 2005/11/30 baino lehen 150€ laguntzarako. Gehienez 2000 iragarri.

HEZKUNTZA ▶

Ikasle Abertzaleek grebara deitu dituzte eskualdeko ikasleak

Bihar egingo dituzte lan etenaldiak Euskal Herriko ikastetxe eta fakultateetan, Ikasleon Nazioarteko Egunean, 12:00etan

NOELIA LATABURU

«Euskal ikasleok bizi duen eskubide zapalketa dela-eta» bihar Mobilizazio Eguna burutuko dute Euskal Herriko ikastetxeetan eta greba orokorra fakultate orotan. Hori dela eta, 12:00etatik aurrera paroa egitera eta «ikasle eskubideen zapalketaren aurreak» ikastetxean zein eskualdean burutuko diren mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatu dute Tolosaldeko Ikasle Abertzaleek,

Arkatzak zorrozteko garaia da! Lotu hadi borrokara lelopean. Bere kideen esanetan, «Ikasleonean Nazioarteko Egunean euskal ikasleek asko dute aldarrikatzeko; izan ere, euskal ikasleok Ikasleon Eskubideen Kartan jasota dauden bederatzizko eskubide ditugu, urraturik daudenak eta, beraz, borrokarako bederatzizko arrazoi». Euskaraz ikasteko ezintasuna, testuliburu arrotzak, adierazpen askeatasuna mugatua, ikasleon aurkako espedienteak, jai

egun inposatuak, ikasleon kolektiboaren ukapena, curriculum inposatuak, greba debekuak, lanbide heziketa erdaraz, hizkuntza sexista, tasa altuak eta Bologna Prozesuaren bidez goi hezkuntza merkantilizatu eta pribatizatu nahi izatea aipatu dituzte, besteak beste, urraketa horien adierazle gisa.

Ikasleon Nazioarteko Egunean jatorria azaldu zuten Ikasle Abertzaleak taldeko kideek iragan ostiralean eginda-



Pasa den ostiralean egin zuten prentsaurrekoa Ikasle Abertzaleek. I. T.

ko prentsaurrekoan. II. Mundu Gerraraino egin zuten atzera, beraz: 1939an Pragako ikasleak, Txekoslovakian, nazien okupazioaren aurka eta haien eskubideen alde matxinatu ziren. Urte bereko azaroaren 15ean nazien okupazioaren aurka burututako ikasle manifestaldiaren ostean jazotako istiluen ondorioz, Jan Opletal ikaslea hilik suertatu zen. Ondorengo bi egunetan ikaskideek heriotza salatzeke ikasle mobilizazio ugari burutu zituz-

ten. Naziek errepresio gordinagoarekin erantzun zuten, eta azaroaren 17an Pragako unibertzitateak itxi eta 1.800 ikasle eta irakasle atxilotu zituzten. Bi urte beranduago, Ikasleon Nazioarteko Kongresua burutu zen Londonen, eta Ikasleon Nazioarteko Eguna izendatzea erabaki zuten.

Bestalde, Sarra Basterrera gonbidatu dituzte ikasleak, hildakoen 26an. Sarrerak 13 eurotan salgai daude Meskal eta In-turxe tabernetan.

ARETO FUTBOLA ▶

Eskoriatzaren aurka porrota Laskorainek

1 eta 3ko emaitzarekin galdu zuten iragan larunbatean Usabalen Laskorainek Eskoriatzaren aurka jokaturako partidari. Partida oso berdindu izan zen lehen zatian, eta gol aukerak bi aretan banatu ziren. Baina 0 eta 2koaren ostean, kanpotarrak jaun eta jabe izan ziren, eta beren nagusitasuna hirugarren gola sartuz agerian utzi zuten. Merituzko porrota, beraz.

GIZARTEA ▶

Kobraketa faltsuen berri, Udaltzaingoak

Udaltzaingoak honako salaketa hau jaso zuen: etxebizitza batera ezezagun batzuk agertu zirela, udal zerga bat kobratzera zihoazela esanez. Etxeko bizilaguna adinekoa zen, eta ez zegoen osasun-egoera onean. Hori aprobe txatu egin zuten. Oraingoan, salaketa bat izan da. Dena den, antzeko egoeran bizi direnei eta horien senideei erne ibiltzeko adierazi diete.

MENDIA ▶

Aurrera darrai Oargi elkarteko hamabostaldiak

Gaur beste ekitaldi bat hartuko du Oargi Mendi Hamabostaldiak. 20:00etan, Karlos Galan espeologoa hizlari lanetan ariko da hiru gaien gainean: Hego Roraima (munduko koartziten kobazulorik handiena), Aralarreko fauna haizulotarraren bizi-iraupen arriskua, eta Ernioiko Ilargi Esnea ibaia. Datosen egunotan ere izango da zer ikusi elkartean.

IKASTAROA ▶

Access data baseak ikastaroa Tolosaldea LHIn

Tolosaldea Goi mailako Lanbide Heziketa Institutuak (LHI) jakinarazi duenez, datorren astelehenean, hilaren 21a, Access data baseak izeneko ikastaroari ekingo diote. Hobetuz-en eta Europako Fondo Sozialaren laguntza du ikastaroak eta, beraz, doan izango dela azaldu dute. Izena eman nahi duenak ikastetxera jo behar du (943 65 11 47).

TEKNOLOGIA ▶

Nola bilatu interneten mintegia, bihar

Miramón Enpresa Digitalak beste mintegi bat egingo du Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuan, bihar, 18:00etan. Bilatu eta aurkitu: nola bilatu Interneten izango da gaia. Interneten informazio iturri garrantzitsua denez, mintegian eduki zabaldua duen sare horretan nola ibili landuko dute, modu praktikoan, enpresarentzat informazio erabilgarria bilatzeko.

KIROLA ▶

Umeentzako sentsibilizazio jardunaldia Ezinduentzako Kirolen Astearen baitan

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak antolatuta egingo dute gaur

N. LATABURU

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak Ezinduentzako Kirolen III. Astea abiarazi zuen pasa den larunbatean. Gaurkoan, Tolosan egingo dute umeen zuzenduriko sentsibilizazio jardunaldia, Usabalen.

Jardunaldi hauen bidez kirol egokituaren berri eman nahi

diote Tolosaldeko eskola umei. Horretarako, ezindu mota desberdinekin egiten dituzten hainbat kirol eta joko erakutsiko dizkiete 8 eta 12 urte bitarteko Hirukideko, Samaniegoko eta Laskoraineko ikasleei. «Itsuek, gurpil-aulkian ibiltzen direnek edo beste ezintasun batzuk dituztenek zer sentsazio izan ditzaketen neska-mutil

hauek sentitzea nahi dugu. Hartara, aberatsago izango dira, hobeto ulertuko dute ezinduek nola diren, eta zer nolako oztipoa eta hesi arkitonikoak dauzkaten». Guztira, 400 gazte inguruk hartuko du parte jardunaldi honetan. Bost txandatan banatuko dituzte haurrak, eta bakoitzean 80 ume inguru ariko dira: lehe-

nengoa 09:00etatik 10:15era izango da; bigarrena, 10:15etik 11:15era; hirugarrena, 11:15etik 12:15era; laugarrena 15:00etatik 16:00etara; eta azkena 16:00etatik 17:00etara izango da.

Ekitaldi gehiago

Bestalde, eta asteari amaiera emateko, ezinduek egiten dituzten kirol askotarikoak erakutsi nahi dituzte, honako hauek, besteak beste: futbola, goibola, slaloma, boccia, esgrima eta saskibaloiko egokitua. Horietan guztietan ezindu fisikoak, psikikoak, garun paralisia dutenak, gorrak eta itsuak

ariko dira. Erakustaldia igandean egingo dute, Usabalen.

Honekin batera, Gipuzkoako guztian zabalduko dituzte beselako ekintza batzuk ere. Besteak beste, Donostiako Kirol Etxean gaur jarriko duten kirol egokituko argazki erakustaldia, Donostiako Bidebieta kiroldegian bihar egingo dituzten saskibaloiko egokituar buruzko jardunaldi teknikoak edota etzi, ostirala, *Kirol egokituaren oraina, geroa eta esperientziak* izeneko hitzaldia, Donostiako Kirol Etxean. Azken honen helburu nagusia «herriko egokituaren orainari eta geroari buruzko ondorioetara iristea» izango da.

ARETO FUTBOLA ▶

Hegoalde ezin izan dio Preconte taldeari partidua irabazi

Talde tolosarrak denboraldiko partidarik ahulena eskaini zuen, bai presioan eta bai defentsan gabeziak erakutsiz

PRECONTE ▶ 5

HEGOALDE ▶ 1

Preconte Telde Canaria.

Sarah, Maria, Mentxu, Delia eta Isa; Yaisa, Laura, Nira, Monica, Margo eta Ana Luis.

Hegoalde. Idoia Manrique, Isa Barrio, Naiara Mayo, Miriam Arana eta Ana Berziano; Vicky Delgado, Amaia Azpilikueta, Edurne Agirretxe, Sarah Ugarte eta Arrate Martinez.

Entrenatzaileak: Mikel Larrea eta Ruben Salvador.

Golak.

0-1: Isa Barriok (5m.);
1-1: Deliak (7m.);
2-1: Isak (15m.);
3-1: Yaisak (20m.);
4-1: Yaisak (21m.);
5-1: Laurak (33m.).



Hegoaldekoak, entrenamendu saio batean. HITZA

EMAITZAK ▶

ARETO FUTBOLA

Emakumezkoen

Ohorezko Maila.

Preconte	5-1	Hegoalde
Mostoles	3-4	Navalcarnero
Finques Cadi	0-5	ADAE Vallad.
C.D. Ourense	2-9	UCAM Murcia
Valencia FFS	3-4	Elche
Majadahonda	5-5	Cordoba
Soto del Real	7-5	Rioja Diam.
M. Zaragoza	4-7	Fuenlabrada

SAILKAPENA ▶

ARETO FUTBOLA

Emakumezkoen

Ohorezko Maila.

Taldea	I	B	G	P
1. Preconte Telde	3	2	2	11
2. Hegoalde	3	1	3	10
3. Navalcarnero	7	0	0	21
4. UCAM Murcia	6	1	0	19
5. Mostoles	5	0	2	15
6. Elche	4	2	1	14
7. Fuenlabrada	4	2	1	14
8. Valladolid	3	2	2	11
9. Finques Cadi	3	1	3	10
10. Soto del Real	3	0	4	9
11. M. Zaragoza	2	1	4	7
12. Majadahonda	2	1	4	7
13. FSF Rioja	2	0	5	6
14. Cordoba	1	2	4	5
15. CD Ourense	0	1	6	1
16. Valencia FFS	0	0	7	0

NEREA URBIZU

Bi asteko etena izan da azkene-ko partidua jokatu zenetik, eta ez da mesederako izan neska tolosarrentzat, etenaldiak eragina eritmoan izan baitu. Zazpigarren jardunaldi honetan joko txarra erakutsi du Hegoalde, irabazten hasi izanagatik ez baitzuen irabazi. Talde aurkariak (Preconte Telde Canaria) bost gol sartzea lortu zuen, eta etxeko neskek gol bakar bat lortu zuten. Partidaren hasieran taldeak gola lortu zuen baina lehen zatia bukatu aurretik kanariarren hiru gol izan ziren, tolosarren defentsako zuloak eta indar gutxiko erasoak aprobetxatuz. Lehen zatia-aren amaieran norgehiagoka erabakita zegoen.

Bigarren zatian zer edo zer hobetzeko nahi nabaririk ez zuen erakutsi gure taldeak, eta kanariarrek bigarren zatia-ren hogeigarren segundoan jadanik laugarren gola sartu zuten. Hegoalde ahul bat ikusi ahal izan zen, defentsarik gabea eta eraso indartsurik gabe. Hala ere, Preconteren jokoa ez zen onena izan, baina ez zuen zaila izan garaipena lortzea.

Nesketan nabarmentzeko izena Idoia da, atezaina, alegia; bost gol sartu zizkioten, baina hori gutxi da igarotako denbora luze eta amaigabea kontuan izanik. Gol gehiago izan zitezina eritmoan izan baitu. Zazpigarren jardunaldi honetan joko txarra erakutsi du Hegoalde, irabazten hasi izanagatik ez baitzuen irabazi. Talde aurkariak (Preconte Telde Canaria) bost gol sartzea lortu zuen, eta etxeko neskek gol bakar bat lortu zuten. Partidaren hasieran taldeak gola lortu zuen baina lehen zatia bukatu aurretik kanariarren hiru gol izan ziren, tolosarren defentsako zuloak eta indar gutxiko erasoak aprobetxatuz. Lehen zatia-aren amaieran norgehiagoka erabakita zegoen.

Azpimarratzekoa da ere epaileen lan eskasa, Preconteren alde nabarmenki agertuz, eta Tolosako taldea kaltetu; baina dena esan beharra da: zuzen ibili izanda ere ez zukeen Hegoalde emaitza askoz hobetzeko nahi nabaririk ez zuen erakutsi gure taldeak, eta kanariarrek bigarren zatia-ren hogeigarren segundoan jadanik laugarren gola sartu zuten. Hegoalde ahul bat ikusi ahal izan zen, defentsarik gabea eta eraso indartsurik gabe. Hala ere, Preconteren jokoa ez zen onena izan, baina ez zuen zaila izan garaipena lortzea.

Hurrengo norgehiagoka Ourense SADen kontra izango da etxean, Usabal kirolgunean, hortaz. Nahiz eta galiziarrek sailkapenaren zuloan egon —zerrendan azkenaurrenak dira— Tolosako neskek etxeko animoak beharko dituzte. Irabazi beharreko partida dute hau, aukera paregabea sailkapenean gora egiteko eta behingoz erdiko postuetatik aldentzeko. Ziurrenik garaipen bat ikusteko aukera izango da.

SASKIBALOA ▶

Garaipen bikainak eta porrotak tolosarrentzat

Maila ia guztiek jokatu zuten, eta denetik ikusi ahal izan zuten jarraitzaileek

N. URBIZU

Pasa den asteburuan jokatu zituzten partidua. Denetik ikusi ahal izan zen, bai porrotak eta baita garaipenak ere. Infantil mailan Tolosa Argysan A taldeak garaipen bikaina lortu zuen, izugarriko errebasoa emanez aurkako taldeari. Gazte hauek 93 puntu lortu zituzten, eta Legazpi-koek 19 bakarrik. Ordizian jokatu dute hurrengo partida.

Ezin berdina esan Argysan B taldeaz. Ordizian jokatu zuten eta ez zuten irabazterik izan, emaitzan argi ikusten denez: 92-21. Azken finean, aurreko hasi direnak dira, eta saskibalo munduan murgiltzea da beraien helburu garrantzitsuena. Nabarmena da ere lehenengo saiotik bigarreneko alde: 14 puntu gehiago lortu dituzte. Ea aguro garaipen bat eskaintzen duten. Hurrengoan, Goierriren aurka ariko dira.

Kadeteen garaipen sutsua aipatzekoa da, joko ona erakutsi zuten eta partida polita

eginez, gainera. Donostiarrren aurka jokatu zuten, hauek bigarren eta hirugarren errebotek jasota puntu asko egin bazituzten ere. Azkenik, emaitza 88-45ekoa izan zen. Hurrengo etxean izango dute larunbatean, 11:00etan.

Senior Mailako Tolosa A-lar taldeak ez zuen Portugal-etetik garaipena ekarri. Baja esanguratsua zeukan, gainera: lau izan ziren kale egin zutenak. Emaitza 83-65ekoa izan zen, eta aurkariak ondo aprobetxatu zuten taldearen barruko ahultasuna aipatu bajak zirela medio. Hirugarren laurdenean soilik irabazi zuten, 16-21ekoarekin. Portugal-eko taldeak partida amaieran lortu zuten alderik handiena, azkenik 18 puntuko abantaila lortu arte.

Hemendik aurrerako partidak larunbatetan izango dira. Horrek bere alde ona duela esaten dute; tolosarren eraldaketa izugarria omen da. Datortzen astean derbia ikusi ahal izango da Usabalen, seletan, donostiarrren kontra.

XAKEA ▶

Sabino Etxeberria izan da aurten irabazle

Tolosan jokaturako xake txapelketan partehartzea eta giroa, azpimarratzekoa

N. URBIZU

Urdiña-Txiki elkartereko Xake Txapelketa jokatu zuten igandean Tolosatik, Ibarratik, Al-tzotik, Berrobitik, Berastegitik, Asteasutik eta Villabonatik etorritako 22 jokalarik. Txapelketa xake azkarrean jokatu zen, jokalaria eta partida bakoitzeko bost minutura. Goiz osoan aritu ziren etengabe, eta azkenean garaipena Sabino

Etxeberria tolosarrentzat izan zen, bere azken aurkaria Villabonako Ernesto Fuente izanik.

Podiumaren gainean Migel mari Baroja tolosarra ere izan zen, eta jubenil mailan saritua Jon Salbarredi berastegierra suertatu zen.

Zalantzarik gabe, xake mail-talek duten aukera gutxi horiek aprobetxatzeko une paregabea izan zen.

MENDI-ALDE

Eguneroko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak,...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • ☎ 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

VILLABONA ▶ HEZKUNTZA

Aurtengo Guraso Eskola Udalak antolatuko du

Gizarte Zerbitzuetara jo behar da hilaren 25a baino lehen; 0-10 eta 11 urtetik aurrerako taldeak sortuko dituzte



Seme-alabekin dituzten harremanak hobetzea eta horiei buruz hausnartzea dute helburu eskolek. i. g.

IMANOL GARCIA

Aurtengo Guraso Eskola Udalak antolatuko du Villabonan, Gizarte Zerbitzuetako sailetik.

Beste urtetan zenbait ikastetxeetako guraso elkarteek antolatzen zuten, eta, orain, herriko guraso guztiei zabaltea-rrin Udaletik bideratuko dute.

Hausnartzeko eta seme-alabekin dituzten harremanak hobetzeko elkartzten den guraso taldea da Guraso Eskola. Guraso talde horretan, seme-alabe-

kin nola jokatu aztertzen da, eta partaide bakoitzak aditu batengandik zein taldekideengandik hainbat ideia jasotzen ditu.

Izenak zehazten duenez, gurasoei zuzenduta dagoen egitasmoa da, eta Villabona herriaren erroldatutako gurasoek lehenetsuna dute. Gizarte Zerbitzuetako bulegoetan egin behar da inskripzioa —943 69 39 25 telefono zenbakia— hilaren 25a arte. Leku kopurua mugatua dago, eta inskripzio ordena kontuan hartuko da.

Bi talde sortuko dira: 0-10 urte bitartekoa eta 11 urtetik aurrerakoa. 0-10 urte bitarteko taldean bi ordutegi daude izena emateko: 14:30etik 16:00-etara eta 17:00etatik 18:30era, biak asteazkenetan. Jende gehienak izena ematen duen ordutegian egingo da ikastaroa, eta bi ordutegiak mantenduko dira beharrezko jende kopuruak izena emanez gero. Haurtzaindegi zerbitzua nahi izanez gero, izena ematerakoan aipatu behar da. Maribel San Sebastian psikologoak eramango du taldea. 11 urtetik aurrerako taldea ostegunetan izango da, 18:30etik 20:00etara, eta Jose Francisco Amiama psikopedagoak izango du talderen ardura. Bi adin tartentzako kuota kopurua 10 eurrotakoa izango da. Eskolak emateko lekua Gurea aretoaren erakusketa gela izango da, eta urtarrietik aurrera ekingo diete saioei.

ZIZURKIL ▶

Teodoro Hernandorena IV. Ipuin Lehiaketa

Zizurkilgo Udaleko Euskara sailak Teodoro Hernandorena IV. Ipuin Lehiaketa antolatu du. Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larraul eta Zizurkil herrietakoek har dezakete parte. Lan bakoitzaren lau kopia entregatu beharko dira hilaren 28a bitartean, —egun hau barne—, 14:00ak baino lehen. Zizurkilgo udaletxean edo udal bulegoetan. Sari banaketa abenduaren 23an egingo dute, eta bertan saritutako lanekin egindako argitalpena aurkeztuko dute.

VILLABONA ▶

Behar-Zanako mus eta tute txapelketa

Behar-Zana elkarteak antolatutako mus eta tute txapelketetarako izen emateko epea bihar bukatuko da.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amarozko dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ### Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

ANOETA ▶ GIZARTEA

Josu Telletxea etnologoak Anoetako baserri buruzko hitzaldia emango du gaur arratsaldean

Anoetako AHT Gelditu! Elkarlanak antolatu du baserri buruzko ekintza informatiboa

ERREDAKZIOA

Anoetako AHT Gelditu! Elkarlanak baserrien inguruko ekintza informatiboa antolatu du gaur arratsalderako. Gaztetxean izango da hitzordua, 19:00etan hasita. Hizlaria Josu Telletxea etnologoa izango da, eta Anoetako baserrien inguruko hitzaldia emango du; ondoren, Gipuzkoako baserrien diapositiba emanaldia eskainiko du.

«Euskal Herri atlantikoan eta bereziki Gipuzkoan noizkoa da lurralde sakabanatuz eratutako lurraldea? Funtsezko galdera honen erantzuna jakiteko oraindik egiteko dauden ikerkuntza arkeologikoen emango

digute», azaltzen du Telletxeak testu batean. «Dakiguna da XI. mendeko hasierakoak direla Ipuzcoa zen lurralde hartan ezagutzen ditugun lehenengo baserri izenak eta hauek Tolosaldean kokatzen dira, hain zuzen ere: Altzoko Zuaznabar eta Artzadun, Tolosako Auzotxi-kiako Ezeizagarai eta Ezeizazabal, eta Aldabako Berazubi, beste batzuen artean».

Leku batean finkatzeari buruz hauxe dio etnologoak: «Bardirudi Aralarretik kostaldera eta alderantziz, beraien artaldeekin ibiltzen ziren familia erdi-nomadak zirela gelditu ziren beren aziendak bazkartzuz zuten saroi edo sarobe larre-lekuetan. Inguru hauetan

elkarren ondoan auzo zirenak bilduta, herriak sortu zituzten. Horien artean Anoeta eta auzokide diren Hernialde eta Alkiza». Baserrien eraldaketari buruz ere ariko da hitzaldian: «Hasieran bizilekua zurezko etxola txiki batzuk ziren eta XV-XVI. mende artean etxola zaharrrak bota eta gaur ezagutzen ditugun baserri zaharrenak eraiki zituzten. Garai hartako aztarnak mantendu dituzte gaur arte, Sarobe eta Iturzarraga edo Iturgaitz baserriek beste batzuren artean. XVII-XVIII. mendekoak dira Ateaga, Etxeberri edo Tapia baserrien gaurko eraikuntzak. Bai aurrekoak eta bai hauek, garai oparoak izan ziren baserriaren-

tzat. XIX. mendean sarturik bitanleen hazkunderekin batera baserriak asko ugariitu ziren, baina orduko eraikuntzak arruntagoak dira. XIX-XX. mendeetako gizarte-krisinen ondoren, baserrien gainbehera amaigabea etorri da».

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inkesta. Bertsolari Txapelketa Nagusian gure eskualdetik Aitor Mendiluze, Amaia Agirre, eta Jexu Mari Irazu ari dira txapela lortzeko lehian. Nor iritsiko da urrutien?

IKAZTEGIETA ▶ KULTUR ASTEA

Kros herrikoia Kultur Astea abian jartzeko

Igandetik hasita eta hilaren 26ra bitarte txotxongiloak, hitzaldiak, antzerkia eta erromeria izango dira

MARTA SAN SEBASTIAN

Oraingoan Ikaztegieta Kultur Asteak hartu du lekukoa. Eskualdeko hainbat herrialdeetan kultur asteak egin ondoren, Ikaztegieta egokitu zaio txanda. Igandean emango diete hasiera jardunaldiak eta hilaren 26ra bitarte luzatuko dira ekitaldiak. Aurten berezitasun bat ere izango du; izan ere, herri krosa ere Kultur Astearen baitan egingo dute. Askotariko ekintzak antolatu ditu Udalak, eta herritar guztiak parte hartzera deitu ditu.

Igandean hasiko da, beraz, Ikaztegieta Kultur Astea. Herri giroa kultur eta kirol elkarrekin antolatuta, Ikaztegieta XV. kros herrikoia izango da. 11:00etan emango diete hasiera probari, eta lasterkariek 10 kilometroko ibilbidea egin beharko dute. Gazteak, aldiz, 10:45ean izango dute irteera ordua. Izen-ematea igandean bertan egin beharko dela ohar-tarazi dute antolatzaileek, 09:00etatik 10:30ak bitarte. 5 euro balio du izen-ematea. Lehenengo iristen diren 200 korrikalariak kamiseta bana irabaziko dute, eta irabazleek kirol materiala jasoko dute. Hori bai, parte-hartzaile guztiak izango dira hamaiketakoa.

Igandean bertan, Kultur Astearen jarraipena izango du arratsaldean. 18:00etan, zehazki, *Bakartxoren zapatillak* izena daraman txotxongilo saioa ikusteko aukera izango dute herriko haurrek eta helduek. Kiroldegiko gimnasioan izango da hitzordua.

Astelehenean, aldiz, hitzaldia izango da Ikaztegieta. *Zergatik dira hain osasuntsuak fruituak eta barazkiak* gaitzat hartuta, Elhuyar fundazioko kideak hitzaldia eskainiko dute, 19:00etan, herriko liburutegian.

Asteartean, Gilkitxaro taldearen eskutik, *Elevator* izeneko antzerki saioa izango da ikusgai, 19:30ean, kiroldegiko gimnasioan.

Kultur Astearen erdigunerara iritsiko dira, dagoeneko, asteazkenean. Orduan, 19:00etan, *Hiriguneetan landa daitezkeen zuhaitz espezieen aukeraketa* izango dute mintzagai Trepala-



Korrikalari asko parte hartzen dute krosan; irudian, iazkoa. HITZA



Hitzaldi dezente antolatu ditu Udalak aurten. OLAIA ESKITXABEL

ri elkartekoek liburutegian. Ostegunean ere hitzaldia izango da liburutegian. Elhuyar fundazioak beste hitzaldi bat eskainiko du, 19:00etan, *Klima aldaketak eta horien eragina gure planetan* izenburupean. Ostiralean, *Antonino Apreta* ipuin kontaketa egingo du Gorringo taldeak, 17:00etan, liburutegian. Aurtengo Kultur Astea giro bikainean amaitzeko, lagunbatean erromeria antolatu dute herriko frontoian. Irrintzi taldea izango da giroa berotzen saiatuko dena.

ALTZO ▶

Psikologiaren inguruko hitzaldia gaur Ertotxen

Gaur, 16:00etan, hitzaldia izango da Ertotxen. Hizlaria Xabier Arrazola psikologoa izango da eta *Psikologia bizitzako ezbeharren aurrean* izango hitzaldiaren ardatza. Arrazolak hainbat gai interesgarri jorratuko ditu, hala nola; bikote arteko harremanak, adikzioei aurre egiteko moduak, lan munduak dakartzan arazoak, istripuak edota gaisotasunak. Hori guztiari aurre egiteko eta depresioa bezalako gaisotasunetan ez erortzeko, psikologiaren onurak defendatuko ditu Xabier Arrazolak. Altzo herriarrentzat gai interesgarria delakoan da Udaleko gizarte zerbitzua eta, bide batez, deialdia luzatu nahi die guztiei. Kutxa Fundazioak herriekin elkarlanean antolatutako hitzaldia da.

ALEGIA ▶

'Whisky' filma gaur gaztetxeko zinezaleentzat

Asteazkeneko legez, gaur ere zinema gaua da Alegiako gaztetxean. Gaur *Whisky* pelikula ikusteko aukera izango da, 21:30ean. Whisky Pablo Stoll eta Pablo Rebella zuzendarien filma da, eta Uruguain grabatua da.



Whisky Uruguain filmaren iragarpen kartela. HITZA

ALDABA ▶ EHIZA



142 kiloko basurdea bota dute

M. San Sebastian ▶ Aldabako Intxur elkarteko kideek euren marka pertsonala gainditu dute oraingoan. Izan ere, 142 kiloko basurdea bota zuten igandean Orendaingo basoetan. Hala, duela hiru urte botatako 131 kiloko basurdearen marka hobetu dute. Elkarteko Miguel Oiarbide izan zen basurdea bota zuena. Duela gutxi Berastegiko ehiztari taldeak ere basurde bat bota zuten, 135 kilokoa hura. Beraz, oraingoz 142 kilotan da errekorra. HITZA

TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

LEHIAKETA

Gobernu Batzarrek, 2005eko azaroaren 2an, ondorengo lanak kontratatzeko baldintza administratiboen aginua onartu zuen: Euskal Herria plazako 1-An dagoen eraikina eraberritzeko proiektua idatzeko lanak kontratatzea.

- 1.- Helburua, Euskal Herria plazako 1-An dagoen eraikina eraberritzeko proiektua idatzeko lanak kontratatzea.
- 2.- Kontratuaaren prezioa, 128,195,70 €, BEZa barne.
- 3.- Exekuzio epea.- Lanak aurkezteko epeak honako hauek dira:
 - Dinarrizko Proiektua: 2 hilabete eta erdiko epea, kontratua sinatzen denetik,
 - Exekuzio-Proiektua: 2 hilabete eta erdiko epea, Udalak Oinarritako Proiektua onartu duela jakinarazten denetik,
 - Osasun eta Seguratasun Azterketa, eta Kalitate-Kontrolko Programa: Exekuzio Proiektuaren hasiera aurkeztu behar dira.
- 4.- Behin-behineko fidantza, 600 euro.
- 5.- Behin betiko fidantza.- Kontratuaaren aurrekontuaren % 4.
- 6.- Espediente ikuszeko, Tolosako Udaltzako Hirigintza eta Obra Departamentuan: plaza Zaharra 6-B, Tel., 943 69 74 51
- 7.- Eskaintzak aurkezteko tokia eta epea.- Tolosako Udaltzako Sarrera Erregistroan —plaza Zaharra, 6-B—, 2005eko Azaroaren 28ra egun arte (13:00ak baino lehen).

Tolosan, 2005eko azaroaren 14ean - ALKATEA

TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Azaroaren 14ko 2005/1989zkoa dekretuen bidez, Alkatetzak honako dokumentu hau tramitaratu jartzea erabaki du:

1.4 "Gorostidi-Voth", E.Z.2 "Miserikordia Zaharra" eta E.Z.6 "Arkaute" eremuen Arau Subsidiarioen aldatzeko aurrerakina.

Planeamendu Araudiko 125. artikulua xedatutakoaren arabera, aurrerakina HOGEITA HAMAR EGUN jendaurrean jarrita egongo da.

Espedientea jendaurrean jartzeko arazoia hau da: korporazio, elkarte eta partikularrek edozein iradokizun edo planeamenduko beste aukera batzuk aurkeztu ahal izatea.

Irargari hau Gipuzkoako aldiakari ofizialan, Berria, Tolosaldeko Hitza eta Diario Vasco argitaratuko da, Aurrean aipatu den epea argitalpen honietako azken iragarpena kaleratu eta biharamunetik hasiko da kontatzen.

Espedientea, inork eztertu nahi badu, Udaltzako Hirigintza Bulegoan egongo da (Plaza Zaharra, 6-B), aipameneko epean, Alegazio edo erreklamazioak alkatetari zuzendu behar zaizkio eta Udaltzako Sarrera Erregistroan aurkeztu.

Tolosan, 2005eko azaroaren 14an
ALKATEA

BERASTEGI ▶ KULTURA



Ezkontza berezia izan dute herrian

Erredakzioa ▶ Pasa den larunbatean, festa berezia egiteko asmoz, herriko bi gazteren arteko ezkontza irudikatu zuten herrian. Alkatearena eginez, «ezkonda» zuen bikotea herritar gazte batek, eta uste baino jende gehiago hurbildu zen bertara jakinminak bultzatuta. Ospakizunaren ostean, ezkontzetan bezala, lunch-a izan zen eta ondoren afaria Urepele elkartearen Tarta banatzea, argazkiak ateratzea eta, nola ez, ezkonduen arteko balsa ere ez zen falta izan, ez eta giro ona ere. HITZA

GIZARTEA ▶



Saharako herriaren eskubideen alde

I. Terradillos ▶ Herenegun, Madrilgo Akordioaren sinadura egin zela 30 urte bete ziren eta, horren harira, eta Saharako herriak bizi duen egoera bukatu dadin eskatzeko, urtero bezala, manifestazioa egin zuten larunbatean Madrilan. Hainbat herrialde desberdinetako 30.000 lagun inguruk hartu zuten parte. Euskal Herri guzitik autobusak antolatuta zituzten hara joateko; Gipuzkoatik, esaterako, autobus bat bete zen, eta tartean izan ziren eskualdeko hainbat herritar ere. HITZA

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

Berdinketarekin konformatu behar

1-1 amaitu zen Ibarren eta Sestao FS-ren arteko partida; epaileek egindako lan txarra azpimarratu dute ibartarrek

ERREDAKZIOA

Ibarra areto futbol taldea berdinketarekin bueltatu zen etxera larunbateko Sestaoren norgehiagokaren ostean. Bi taldeak nahiko parekatuta ibili ziren, puntuak batu nahian gogor borrokatuz, eta ikusizun polita eskainiz. Epaileen lana,

ordea, Jose Manuel Tobias Ibarra-koen prentsa arduradunak azaldu bezala, ez zen oso egokia izan, eta Ibarri hainbatetan kalte egin zioten haien erabakiek.

Bi taldeek aukera handiak izan zituzten golak egiteko, baina bai Ibarra-koen atezaina bai eta Sestao-koena ere fin aritu zi-

ren geldiketa bikainak burutz. Hala, aukera bat bera ere gauzatu gabe iritsi ziren 0-0 eko markagailuarekin atsendaldira.

Bigarren zatian erritmo biziarekin jarraitu zuten bi taldeek, aukerak batak zein besteak sortuz. Epaileek ere bere horretan jarraitu zuten, lehenen-

SESTAO FS ▶ 1

IBARRA ▶ 1

Hasierako bostekoa. Mikel Sanz; Unai Labaka; Hautsi Izagirre; David Prados; Lander Camio.

Aldaketak. Sinoe Sanz; Mauro Ayerza; Fernando Ayerza; Ustaritz Errondosoro; Igor Zabalo; Xabier Blanch.

go zatian bezala, Ibarra-koen aurka, merezi baino falta gehiago adieraziz, etxeko taldeak bat bera ere ikusten ez zuten bitartean. Aipatu beharra dago txartel urdina zuzenean atera ziotela Ibarra-koen atezainari honek benetan merezi gabe.

Zailtasun horiek medio, 36 minutuan aurretik jarri ziren Sestao-koak, Asier Peña jokalaria golaren ondorioz. 3 minutu behar izan zituen Ibarra-koen berdinketaren gola egiteko. Lander Camio sartu zuen gola. Bi taldeak 5 faltekin zeuden, eta partida amaitzeko 40 segundo geratzen zirenean Ibarra-koen aldeko falta ikusi zuten epaileak. Ez zuten, ordea, baloia sarreratzea lortu.

Eztabaida hurrengo jokaldian etorri zen; izan ere, markagailuaren arabera, partida amaitu zuten uen epaileak penalti bikoitza adierazi zuten ibartarren aurka. Sanz atezainak gelditu egin zuten, ordea. Beraz, 1-1 ekoarekin amaitu zen epaileen «lan txarra» azpimarratu behar den partida.

iragarki laburrak ▶



Pablo Gorosabel, 40
1. pisua - 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel. eta Fax: 943 65 55 87
mug.: 669 368 994

Aduna. 608 m²-ko pabilioia alokairuan, garabi-zubiarekin, bulegoak jarrita.

Albiztur. Berrikuntza behar duen baserria salgai. Hiru solairu, bakoitza 200 m²-koa. 35.000 m²-ko lur-saila. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Alkiza. Bi familientzako baserria salgai. Berritzeko. Informazio pertsonala.

Andoain. Berritutako etxebizitza altua, ikuspegi bikainak, igogailua eta terrazan solariumarekin. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Anoeta. Estreinatzeko, etxebizitza duplexean, 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, terraza eta garajea aukeran. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Asteasu. 2 solairuko pabilioia salgai

edo alokeran, 1050 m² eta 250 m²-ko solairuarekin, modu guztietako tresnekin eta hobekuntzekin. Telef.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Beasain. 45 m² erabilgarriko apartamentua eta lokal komertziala salgai. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Berrobi. 100 m²-ko etxebizitza, berritua, trasteleku handiarekin. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Berrobi. 50 m²-ko etxebizitza salgai, planta baxuan. Berritua. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Bidanía. Erantsitako azken txaleta, eraikitako 160 m². Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Legorreta. 3 hektareako lursaila, sarrera onarekin. Telef.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Lizartza. Eraikuntza berriko 14.000 m² pabilioi salgai, 920 m²-ko azken moduluak. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Segura. Eraikitzen ari diren erantsitako 14 txalek, 297.500 eurotik hasita. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Belate pasealekua, 4. solairuko etxebizitza, 70 m²-koa. Kanpoaldera, igogailuarekin eta trastelekuarekin. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Santa Klara kalean, 90 m² dituen etxebizitza, berritua. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Apataerrek, duplex berritua, garajearekin eta lursailarekin. Telef.: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Pablo Gorosabel kalean

azken apartamentua, eraikuntza berrikoa, 65 m² erabilgarriak. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Zumalakarregi kalean hirugarren solairuan berrituriko etxebizitza salgai. Berritua, 3 edo 4 logelatako aukera. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Zumalakarregi kalean, 150 m²-ko etxebizitza, egoera ezin hobean, garajea aukeran. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Tren-geltokiko zonaldean 105 m²-ko etxebizitza. Garajea eta lorategia. Telefonoak: 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

Tolosa. Alokarako etxebizitzak ere baditugu. Bulegoan norbanakoarentzat informazioa. 943 65 55 87 edo 669 36 89 94.

PILOTA ▶



Mikel Olazabal, Leitzako Txapelketako finaleko une batean. JAIONE ASTIBIA

Finalaurrean da Mikel Olazabal

Partidu ikusgarria jokatu, 22 eta 15 irabazi du DV sariketako final-laurdena

JAIONE ASTIBIA

Mikel Olazabal aresoarrak DV pilota sariketan finalaurrekoetarako txartela eskuratu zuen igandean Zegaman, atzeko koadroetan Jauregi lagun zuela, jokaturako finalaurdenak irabazi ondoren.

22 eta 15 irabazi zioten Castillo-Argote bikoteari, serieko buruei hain zuzen, partidu bikaina egin ondoren. Bertan ziren esanetan, «partidu ikusgarria» egin zuena Olazabal bera izan omen zen. Aresoarrak berak egiten dakien jokaldiak egin zituen, hainbat gantxo eginez eta, batez ere, sakearekin gailenduz: zazpi tanto egin zituen saketik. Jauregi ere «seguru» aritu zen lanean, partidua aurreratu ahala haziz, eta Olazabal beraren ziurtasunaren jabe eginez: honek 10 sake erantzun baitzituen airez, lagu-

nari eskua botaz. Partidu osoan zehar kantxan ikusi zenaren isla izan zen markagailua ere, Olazabal eta Jauregi erabat aurretik joan baitziren.

Horrela, bada, hurrengo pausoa emateko prest dira pilotariak, finalaurrekoa, alegia: hurrengo hilaren 6an jokatu dute, Tolosako Beotibarren, Aizagirre-Azanza eta Olaetxea-Apraiz arteko norgehiagokan irabazlearen aurka.

Gaztetxoak Lizarrakoan

Bestalde, Anartz Olano aresoarra eta Jon Jaunarena leitzarra Lizarrako Lau t'erdiko banakako Txapelketako finalerako sailkatu dira asteburuan.

Aldiz, Nafarroako Txapelketan, Unai Onsalo aresoarrak eta Patxi Beteluk galdu egin zuten 22-19, Diez de Ulzurrun-Ongairen aurkakoan.

LEITZA ▶ FUTBOLA

Eguraldi hotza, euria eta lohiaz gain, golak ere izan dira Arkixkilen

3-1 eskuratu du Aurrerak Beti Onak-ekin; hurrengoan ez da saiorik

J. ASTIBIA

Pasa berri den jardunaldian beste garaipen bat gehiago erantsi dio Aurrera futbol taldeak bere kirol orriari. Hone-takoan Beti Onak taldea izan zuen arerio, Arkixkilen, eta 3-1eko emaitza eskuratu zuten leitzarrek. Aipatzekoa da, futbolaz gain, eguraldiak eta, ondorioz, zelaiaren egoerak ere zeresana eman zuela igande arratsaldean. Horrela mintzatu ziren behinik behin taldeko ordezkariak HITZAREKIN: «Zelaia oso txarra zegoen, lohi asko zegoen: euria aritu zuen erabat eta bezperan beste partidu bat ere izan zen bertan», adierazi zuten.

Baina, hala ere, partidu ona egin zuten Aurrerakoek, azken emaitza horren ispilu. Lehen erdian, bi taldeak nahiko pare-

an ibili ziren, hasi eta minutu eskasetara iritsi zela etxekoan aurreneko gola, Jabi Urriagak falta bat zuzenean ateratu jaurtikita, gol oso polita. 5 minutu falta zirenean, atarrabiarrek partidua berdindu zuten. Atsedenetik zelairatu ziren bezain laster, ordea, jokalaria bat gutxiagorekin gelditu ziren, area ertzean gol aukera garbi bat ekiditeko egindako falta itsusi baten ondorioz. Handik aurrera, Beti Onak-eko mutilak ongi aritu baziren ere, Aurrerak gol aukera gehiago sortu zituen jokalaria bat gehiagorekin aritzea baliatuz. 10 minutu falta zirela iritsi zen 2 eta 1ekoa: falta baten erdiraketan, Iñigo de Karlosek buruz egindakoa. Jokoz kanpo erreklamaturako jokaldi eztabaidagarria izan zen, betitarren uestez. Eta azken bukaera emateko,

hain zuzen ere partiduko azken jokaldian, egin zuen hirugarrena Mikel Azpirozek.

Giro umela izanik ere, ikus-teko partidu polita izan zen, beraz, igandekoa. Eta emaitzarekin konforme ageri ziren jokalariek ere: «Haiek ere ongi aritu ziren, baina guk aukera gehiago sortu genituen, eta haiek jokalaria bat gutxiagorekin gelditzea ere, gakoa izan zen», baieztatu zuten. Beste 3 puntu gehitu dizkio, beraz, Aurrerak bere kontuari; 17 puntu ditu.

Jakin hurrengo asteburuan ez dela futbol jardunaldirik izanen Lurraldeko Lehen Maila honetan, Nafarroako kopako partiduak direlako. Aurrera ez da horretan parte hartzen ari, baina atsedean izanen du. Hurrengo partidua, hilaren 27koa izanen da.

GIZARTEA ▶

Plazaolako bide berdean zehar ibilaldi birtuala egiteko aukera eskuragarri

www.viasverdes.com helbidean dago zintzilikatuta eskaintza

J. ASTIBIA

Plazaola Patzuergotik jakinazari dutenez, bide berdeei buruzko www.viasverdes.com web orrian, besteak beste Plazaolako trenbidean zeharreko ibilaldi birtuala egiteko aukera eskaintzen dute.

Bertan, bide berdearen luzera, profila, egoera, eta inguruko herri eta parajeetako informazioa ere eskuragarri dago.

hilberriak eta urteurrenak ▶

Alexander Iribar Errasti

«Sandro»

-VI. urteurrena-

Alexander izena Sandro lagunentzat Istripu batek kendu hizkizkian ametsak Omenaldi xume hau Sandro dek huretaz Haizak ez ditukela lagun jakin ezak hire oroitzapenak ahazten errezak.



ZESTOA, 2005eko azaroaren 16an

Jose Ignacio Rodriguez Montoya

Igandean hil zen, 56 urte zituela. Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Jose Inazio, hamaika urte pasa ditugu elkarri maiko nahiz irri eta izan zaigu zirraragarri. Aurrerantzean ere gertu delika izango nauzu sarri maiko nahiz irri.

Maite zaitut. Maritere.



LEGAZPI, 2005eko azaroaren 16a

Mikaela Arostegi Agirrezabala

(Sebastian Iturriozen alarguna)

- Goian bego -

Nahiz eta gure artekin urrutira joan beti izango zaitugu gure bihotzean.

M. Jesus eta Luis, Maritxu eta Karlos, Oskarbi



LAZKAO, 2005eko azaroaren 16a

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000 eixetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Jose Ignacio Rodriguez Montoya

Igandean hil zen, 56 urte zituela. Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Jose Inazio, hamaika urte pasa ditugu elkarri maiko nahiz irri eta izan zaigu zirraragarri. Aurrerantzean ere gertu delika izango nauzu sarri maiko nahiz irri.

Maite zaitut. Maritere.

LEGAZPI, 2005eko azaroaren 16a

Mikaela Arostegi Agirrezabala

(Sebastian Iturriozen alarguna)

- Goian bego -

Nahiz eta gure artekin urrutira joan beti izango zaitugu gure bihotzean.

M. Jesus eta Luis, Maritxu eta Karlos, Oskarbi

LAZKAO, 2005eko azaroaren 16a



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko azaroaren 16a, asteazkena ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez arratsaldez berorea **14** hotzena **12**

BIHARKO EGURALDIA

goizez arratsaldez

ELURRA ARALARREN

Guardetxe: gaur: ez / bihar: ez

Pagomari: gaur: bai / bihar: bai

HITZA-KO BEZEREN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak argitzeko, harpidetun egiteko...) **943 30 43 46**

AGENDA ▶

DEIALDIK

Ibarra. Bizi Nahi jubilatutako elkarteak irteera antolatuta du Almandozera (Nafarroa) hilaren 26an. Izen-ematea zabalik da elkartearen, 11:00etatik 13:00etara, 25 eurotan (bazkaria barne).
Villabona. Behar Zana kirol elkarteak 2006-07rako mus eta tute txapelketak antolatuta ditu. Izen-ematea zabalik da, elkartearen.
Tolosa. Amaroiz Kirol Elkartearen festa izango da hilaren 26an, Ferialekuan. Afarirako izen-ematea zabalik da, 18 eurotan, Tolosako eta Iraxo eta Orbela eta Ibarra Karlatz tabernetan, eta Amaroizko Errotatxo okindegian.
Tolosa. Harizpe jubilatutako elkarteak Gabonetako Loteria eta saskietarako zenbakiak salgai jarri ditu bazkide eta laguntzat. Astelehenean, asteazken eta ostegunetan, 10:30etik 12:30era, jo daiteke elkartera (Emeterio Arrese).

ERAKUSKETAK

Tolosa. Euskal mendizaletasunari buruzko erakusketa, Oargi elkartearen. Mendi Hamabostaldiairean baitan.



Bertsolarako txartelak salgai HITZAn

BERTSOLARITZA ▶ Abenduaren 18an jokatu da Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala BECen, Barakaldon. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN Tolosako egoitzan salgai dira finalerako txartelak, 25 eurotan. Bazkarirako txartelak ere eskura daitezke, 18 eurotan. Garraioari dagokionean, Bertsozale Elkarteak finalera joateko autobus txartelak ere jarri

ditu salgai HITZAn, 12 eurotan. Bazkideen deskontua nahi dutenek Bertsozale Elkartearen bertan eskuratu beharko dutela adierazi dute antolatzaileek, Donostiako Igeldo pasealekua, 25 helbidean edo 943 21 77 98 telefono zenbakira deituta. Internet bidez ere bada modurik, www.bertsozale.com eta www.txapelketanagusia.com helbideetan. BERTSOZALE ELKARTEA

HITZALDIK

Aduna. Aralar, Tolosaldeko

parke naturala. Iñaki Aizpuruaren eskutik. 20:00etan, Kultur aretoan.

Kultur Astearen barruan antolatuta dute.
Aitzo. *Psikologia bizitzako ezbeharren aurrean.* Xabier Arrazola psikologoaren eskutik. 16:00etan, Ertotxen.
Anoeta. Anoetako baserri buruzko saioa, Josu Tellexea etnologoarekin. 19:00etan, Gaztetxean. Anoetako AHT Gelditu! Elkarlanak antolatuta.
Tolosa. Karlos Galan espeleologoaren hitzaldia, hiru gaien inguruan: Hego Roraima munduko koartzitaren kobazuloak handiena, Aralarreko fauna haiztulotarraren biziraupen arriskua eta Ernioiko Ilargi Esnea ibaia. 20:00etan, Oargin. Mendi Hamabostaldian.

ZINE-KLUBA

Alegia. Pablo Stoll eta Juan Pablo Rebellaren *Whisky* filma. 21:30ean, Gaztetxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Leiza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
 Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

GALTZAUNDI ▶



Aldizkaria. Galtzaundi.
Zenbakia. 223.a (2005eko azaroaren 11).
Orrialdeak. 24.
Tirada. 5.000 ale.
Gai nagusia. *Euskal Herriko ardia munduan zehar.* Ardi Latxa Kultur Elkarte.
Beste gaiak. Alegiako eta Maliko elizbarrutiak gosetarean aurka, babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa, Babarrun Astea...
Argitaratzailea. Galtzaundi Euskara Taldea.
 ▶ Nafarroa etorbid., 6-behea.
 ▶ 943 65 50 04.
 ▶ galtzaundi@galtzaundi.com
 ▶ www.galtzaundi.com

AIURRI ▶



Aldizkaria. Aiurri.
Zenbakia. 244.a (2005eko azaroaren 11).
Orrialdeak. 28.
Tirada. 2.500 ale.
Gai nagusia. Lumane egutegia Amasa-Villabonan.
Beste gaiak. Adunako Kultur Astea, Asteasuiko Udak Liburutegia, Amasa-Villabonan Salvadoran eta Kale Nagusian aldaketak, Bertsolari Txapelketa Nagusia, Zizurkilgo Eskolastika Zabala...
Argitaratzailea. Manuel Larramendi Kultur Bazkua.
 ▶ Kale Berria 47, 3. esk.
 ▶ 943 69 64 50
 ▶ aiurri@topagunea.com
 ▶ www.aiurri.com

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Xiker Urkia (Anoeta).
 Gaur 10 urte.
 Zorionak eta ondo pasa.



URTE ASKOAN
 Andres Gaztañaga (Ibarra).
 Gaur 88 urte. Zorionak eta egun ona pasa ebekoen partez.

HITZA, zorion agurren tartea
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberririak... zoriontzeko, etorri:
HITZAREN egoitzetara:
 Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
 Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
 Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. *Mila esker!*



jantzi hitza

ren jertse berriak

HITZaren egoitzetan salgai